



2018KO URTARRILA-IRAILA EMAITZAK



2018ko azaroak 12

- Kontratazioa
- Eskari-zorroa
- Eraitza-kontu bateratua
- Aurreikuspenak
- Intereseke beste informazio batzuk

Kontratazio gehiago 3. hiruhilekoan. Sinatu gabe dauden esleipenak gehitzea falta da

(milioi eurotan)

	2015	2016	2017	2018		
	1HH-4HH	1HH-4HH	1HH-4HH	1HH	1HH-2HH	1HH-3HH
Kontratazioa	902	2.677	1.514	143	407	753 ²

¹

Honako hauek izan dira 2018ko hirugarren hiruhilekoan eskarien zorroan gehitu diren proiektu nagusiak:



Franquicia Northern
(Erresuma Batua)



Oslo (Norvegia)

Kontratazio hori urtearen lehen erdian jakinarazitakoari gehitu behar diogu eta, aipatutako proiektuez gain, beste negozio batzuetatik iritsitako kontratu berriak gehitzen ditu: Rail Services, MiiRA eta beste negozio-lerro batzuetakoak. Horien guztien artean, nabarmendu beharrekoa da autobusen enkargu berriak lortu direla eta abian zeuden proiektuetan doiketak egin direla (plusbalioak, minusbalioak eta bihurketa-doiketak batez ere).

¹ Honela lortutako kontratazioa: (Aldi-amaierako zorroa – Aldi-hasierako zorroa + Aldiko salmentak). Kontratuaren sinadura hartu dugu eskarien zorroan aitortzeko irizpide gisa,³ Solarisi erositako zorroa gehitu gabe.

² Zifra horrek ez ditu jasotzen kontratatutako proiektu batzuetan aurrez ikusitako aukerak.

Oslo (Norvegia) – *Kontratatuta eta zorroan*

Norvegiako hiriburuko hiri-garraioko operadore publikoak, Sporveien-ek, CAFekin sinatu du Oslo hirirako URBOS familiako tranbia-unitate berriak hornitzeko akordioa.

Honako hauek biltzen ditu proiektuak:

- 5 kotxeko 87 unitateren hornikuntza.
- Gainera, kontratuak beste 60 unitate kontratatuzeko aukera jasotzen du.



Arriva-Northern Franchise (Erresuma Batua) – *Kontratatuta eta zorroan*

2018ko uztailean, 2016an esleitutako kontratua handitzeko akordioa sinatu zuen CAFek Arriva UK operadorearekin eta Eversholt Rail Group finantza-enpresarekin. Gaur egun, fabrikazio-fasean dago proiektua.

Honako hauek biltzen ditu handitze horrek:

- Beste 3 diesel-unitate hornitzea




Eskarien zorroa



Igoera gertatu da eskarien zorroan, batez ere Solarisen eragina dela eta

Zorroa, guztira (M€)



CAF Taldearen **eskari-zorroa**, 2018ko irailaren 30ean, 6.246 milioi eurotan dago.

Zifra horrek Solarisetik eratorritako zorroa jasotzen du eta **ez ditu biltzen** esleitura, baina sinatu gabe dauden proiektuak. Horien gutxi gorabeherako balioa **1.200 milioi eurokoa** da. Emaitza hauek argitaratu diren unean, zenbateko hori biltzen duten kontratuak ugari dira eta proiektu hauei dagozkie:

- Metro-unitateak Amsterdam hirirako.
- DMUak eta horien mantentzea Wales & Borders frankiziarako (Erresuma Batua).
- Sistema osoaren hornikuntza Liejako tranbiarako Tram D'Arden (CAFek, Colasek eta DIFek osatu dute) kontsortzioaren bidez.

¹ 2018ko hiru hilereko bakoitzeko Zorroa / Salmentak Ratioa, 2017ko urteko salmenta-zifraren arabera kalkulatuta.

Emaiza-kontu bateratua



(milioi eurotan)

	2018/09	2017/09	Aldak. %
Negoio-zifraren zenbateko garbia	1.372	1.052	% 30
EBITDA	136	130	% 5
Ibilgetuaren hornikuntzak eta amortizazioa	(30)	(26)	% 15
EBIT	105	104	% 2
Finantza-emaiza	(47)	(59)	(% 20)
Zergen aurreko emaitza	58	45	% 29
Irabazien gaineko zerga	(28)	(16)	% 69
Emaiza garbia zergen ondoren	30	28	% 6
Kanpoko bazkideen emaitza	(1)	-	(% 851)
Sozietate nagusiari egotzitako emaitza	31	28	% 10

2018ko irailaren 30ean pilatutako **negoio-zifraren zenbateko garbia** 1.372 milioi eurokoa da; zifra horrek % 30eko urtetik urterako igoera adierazten du.

Igoera handi hori, neurri handi batean, tren-ibilgailuen fabrikazio-negoioaren jarduerak izan duen erritmo biziak eragin du. Gaur egun 40 proiektu baino gehiago daude abian mundu osoko hainbat tokitarako. Aldirietako eta eskualdeko trenen segmentua da oraindik ere ekarpen handiena egiten duena **bolumen handiko proiektuei** esker. Horien artean, hauek aipatu behar dira: Holandako NS operadorearentzako eskualdeko unitateak edo Erresuma Batuko Northern eta Transpennine frankizientzako ibilgailuen konposizio ugariak.

Britainia Handiko proiektu horiekin lotuta, bereziki nabarmendu beharrekoa da Erresuma Batuan, Newport-en, lantegi berrian material mugigarriaren fabrikazioko, akaberako eta probetako lanak irailean hasi zituztela.

Hori guztia kontuan hartuta, nazioarteko salmentek guztizkoarekiko % 89 osatzen dute eta horrek agerian utzi du, beste behin, enpresak **nazioarteko proiektzio handia** duela.

Emaidza-kontu bateratua



(milioi eurotan)

	2018/09	2017/09	Aldak. %
Negozio-zifraren zenbateko garbia	1.372	1.052	% 30
EBITDA	136	130	% 5
Ibilgetuaren hornikuntzak eta amortizazioa	(30)	(26)	% 15
EBIT	105	104	% 2
Finantza-emaizta	(47)	(59)	(% 20)
Zergen aurreko emaitza	58	45	% 29
Irabazien gaineko zerga	(28)	(16)	% 69
Emaidza garbia zergen ondoren	30	28	% 6
Kanpoko bazkideen emaitza	(1)	-	(% 851)
Sozietate nagusiari egotzitako emaitza	31	28	% 10

Ekitaldiko lehen bederatzi hilabeteetako **EBITDA** 136 milioi eurokoa izan da; hau da, aldi bereko EBITDA marjinarekiko % 10ean egon da eta aurreko urteko aldi bereko zifra % 5 handitu du.

Honako hauek bultzatu dute emaitza hori:

- Aldi horretako *negozioen mixa*. Material mugigarriaren salmentak eragin handia izan du.
- Aldi horretan salmentak gehitu dituzten *proiektuen mixa*.
- *Brasilgo errealak balioa galdu* dueneko testuingurua. Tokiko inflazioarekiko etorkizuneko fluxuak eguneratuta, etorkizunean suspertuko den aurreikuspena dago.

Finantza-emaizta, bestalde, 2018ko irailaren 30ean 47 milioi euroko gastukoa izan da; hau da, aurreko urteko aldi berekoa baino % 20 txikiagoa.

2018ko irailaren 30ean, **zergen aurreko emaitza** 58 milioi eurokoa izan da; hau da, 2017ko aldi bereko irabazia baino % 29 handiagoa.

Azkenik, 2018ko irailaren 30ean, **Sozietateen gaineko Zergaren ondorengo emaitza garbia** 30 milioi euroko irabazikoa izan da; hau da, aurreko urteko aldi berekoa baino % 6 handiagoa. Dena den, Sozietateen gaineko Zergaren foru-arau berritik eratorritako kontularitzako gastu handiagoaren eraginak jaitziera eragin dio.

Aurreikuspenak



Enpresak bere aurreikuspenak mantendu ditu:

- Negozio-zifrak bi digituko igoera izango du 2018an eta hurrengo ekitaldian, eta horren oinarriak azken ekitaldian izandako kontratazio maila altua eta Solarisen ekarpena izango dira.
- Hurrengo ekitaldiei dagokienez, irabazian goranzko joera honako hauei esker:
 - a) Jardueraren igoera eta, batez ere, Europako fabrikazio-lantegietan.
 - b) Kontratazio-marjina historikoekin lerrotatuta dago.
 - c) Eskarien zorroan gauzatze-arrisku txikiagoa dago.
 - d) Lanen bikaintasuna eta eragingarritasuneko programak:
 - Hobekuntza fabrikazioaren eta industrializazioaren hobekuntzan
 - Optimizazioa hornitzaileen lanean kalitateari eta entregei dagokienez
 - Globalizazioa erosketetan eta kudeaketaren hobekuntza
 - Inbentarioaren kudeaketa eragingarria
- Gaur egungo eskarien zorro historikoari eusteko helburua. Horren oinarria 7.000 milioi euro baino gehiagoko eskaintza irekien bolumen egonkorra da.
- 2020rako ildo estrategikoak abian daude honako helburu hauek kontuan hartuta: hazkundea, eragingarritasuna eta digitalizazioa.



Intereseko beste informazio batzuk



Jarraian, erosi berria den Solaris Bus & Coach SA enpresak CAF Taldeko kontu bateratuetan izan dituen eraginei buruzko intereseko informazioa gehitu dugu:



NOIZTIK

2018ko irailaren 5etik

PARTAIDETZA %

Partaidetzaren % 100 equity-an, Poloniako PFR funtsa Solarisen kapitalean % 35ekin sartu arte

**ALDERAGARRITASU
NA**

Kontuan izan behar da Solaris barneratu izanak CAFeko informazio historikoa alderatzeko aukeran eragina duela

Dokumentu honek informazio-helburua du soilik.

Dokumentu honetan dagoen informazioa ez dute hirugarren independenteek egiaztatu; ildo horretatik, ez dago informazioaren edo bertan adierazitako iritzien edo aitopenen inpartzialtasunari, zehaztasunari, osotasunari edo zuzenketari buruzko berme zehatzik.

Dokumentu honek etorkizuneko aurreikuspenei eta estimazioei buruzko agerpenak izan ditzake eta horiek ezingo dira errendimenduko berme edo etorkizuneko emaitza gisa hartu arriskuak eta gorabeherak izan baititzakete. Horietako asko CAFen kontroletik kanpo daude eta gerta daiteke emaitzak errealak aipatutako aurreikuspenetan eta estimazioetan adierazitakoetatik materialki bat ez etortzea.

Beraz, inola ere ezingo da CAFeko akzioak saldu, erosi edo akzioetan parte hartzeko, edo beste edozein balio edo inbertisiotarako aholku edo gomendio gisa hartu. Gainera, helburuen artean ez du produktu edo finantza-zerbitzurik eskaintzea.

Dokumentu honetan jasotako informazioa eta iritziak dokumentua prestatu deneko datan emandakoak dira eta alde zuzenetik jakinarazi beharrik izan gabe egiaztatzearen, amaitzearen eta aldatzearen mende daude. CAFek ez du estimazioak eta aurreikuspenak jendaurrean eguneratzeko edo berrikusteko inolako betebeharririk hartzen bere gain. Eguneraketa edo berrikusketa horiek informazio berriaren, etorkizuneko gertakizunen edo beste gorabehera batzuen ondorio izan daitezke.

Dokumentu honetan jasotako informazioaren ondorioz hirugarren batek hartutako edozein erabaki hirugarren horren arrisku eta erantzukizun eksklusiboaren eta bakarraren mende geratuko da. CAFek, haren filialek edo ordezkariak ez dira edozein kalderen arduradunak izango eta ez dute dokumentu hau edo bertako edukia erabiltzetik eratorritako inolako erantzukizunik beren gain hartuko.

Dokumentu hau eta bertan jasotako informazioa CAFen jabetzakoak dira eta ezingo dira kopiatu, erreproduzitu, argitaratu edo banatu (osorik edo partzialki) CAFek alde zuzenetik idatzizko baimena eman gabe.